

Hornitu

mobila BBK-ko kutxazainetan



Hornitu mobila erarik erosoenean

Edozein izanik telefonia mobileko zure operadorea, dagoeneko, edozein txartelekin hornitu dezakezu zure telefonoa, erraz-erraz, BBK-ko edozein kutxazainetan.


bbk =

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

berria

ISSN: 1577-9025

2002ko UZTAILA / 46. zkia. DOHAIN



**Santutxuko
Jaiak**



Itziar Lazaro

"Otxarkoagak ezagutzen gaitu eta errespetatzen gaitu"




Zurbaran 1930 hamarkadan

Zurbaran aldera joko dogu oraingoan. 1930 urte hamarkadean agustindar fraileen eskutik egindako funtzio erlijioetsua da hau.

Zurbaranen sarbidean bertan arkua altxatu eben Jesus Sacramentadoreen omenez. Atzean Zurbarango txaletak ikusten doguz. Euskal estiloan eraiki ebezan 1920 urte hamarkadatik aurrera. Arkuan bandera asko dagoz, itsasoan seinaleak egiteko erabilten diran hoietakoak.

Argazkia Luis Amann eta Roman Alonsoren 'Nire Bilbao Maitia' liburutik hartu dogu.

Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke haren kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako ipiniko dogu atal hontan. Aldez aurretik, esker mila.



JUSTUEGUNE

Abustuak 3 Zap
Tetuane Land
(Iturritxualde me



- ▶ Iritzia4
- ▶ Santutxuko Jaiak5
- ▶ Begoña eta Euskerea8
- ▶ Galtzagorri10
- ▶ Done Jakue bidearen sahiesbidea ...12
- ▶ Elkarrizketa: Itziar Lazaro15
- ▶ Inkesta19

- ▶ Mahatsberriak20
- ▶ Alberto Hierro24
- ▶ Mendi Ibilbidea27
- ▶ Justugune28
- ▶ Horoskopoa/Agenda30
- ▶ Hileko Argazkia31

Euridxe ta euridxe, hau udie! Ta euri ta guzti, pil-pilien dabil dana. Festak eta jaidxek han ta hamen. Han hamen baino gehidxago dinourie Santutxukoak, baie festie preparaten abilek gara hamen danok. Aitu Pa Yakoeri ba, lehen-goan Txantreakoakaz, oin Justugunea ta gero Mari Jaia, ta bolanderak ez jakiez akabaten gero! Lastima batzuek jaidxetako kontuetarako Santiagoko kaminoak egitten zeuena eurek bere egitten dauriela, hau de, Begoñetik pasau Begoñe ukutu barik. Hainbeste tunel eta metro-gaz, gure azpittik pasaten direz Ayuntamentuen kontuek eta diruek. Jaidxek eta espektakuluek

Arenaleti Artxandara, baie gurien ezer bere ez. Norberak egin behar dittuz holango kontuek, eta egin bere egitten direz, eskerrak, ze ezpa-bere... Dirue kobrateko orduen, barriz, ez direz gugez ahiztuten ba, ta holan segidu ezkeru zeozer ein bierko da... Ideiek batuten nabil, ta iguel ein bierko dogu Perrejilena-edo halango zeozer, Tetuaneko punten (kasualidadie gero ixena!) banderie ifini ta datozela Ayuntamientoko legionaridxoak kentzen. Holan sikieran pil-pil apurtxu bat emongo leukie gurien. Pil-pilek ez daroa perrejillik dana dala.

GURE BAZTERRAK

SALBEKO BIDEZUBIA

Salben, Begoña eta Deustuaren arteko mugatik hur-hurrean, Ibaizabalek errebolta handi bat egiten zuen. Hura gainditutakoan, Bilbora zetozen barkuetako itsasgizon fededunek 'salbe' bat kantatu ohi zuten Begoñako eliza ikustean, Andra Maria omentzeko.

Eraiki, ibilgailuen trafikoa bultzatzeko grinaz eraiki zuten. Autoak orduan N-634 eta N-240 errepidetatik zetozen eta Bilbo erdiraino eraman zituzten Atxuritik eta Zumalakarregi etorbideko jaitsieratik igaro barik. Sasoi hartako Herri-lanen Ministerioak (Ministerio de Obras Públicas, MOP) egin zuen. Salben eginiko lana inguruarentzat eraso latza izan zen, guztiz baldar amaituta gainera. Ingenieritza lanek Bilbori zelako kalte ekarri dioten adibide argia. Diktaduraren garaian egin zen baina, gaur bezalaxe, herritarrok ez genuen ezer esan, beharbada erabilgarria izan bazelako. Estetikaren ikuspegitik hiri bati eman ahal zaion zubirik motzenetakoa dugu Salbekoa.

Tekniko arloan, oster, obra garrantzitsu eta ausarta izan zen, Penintsulan egindako lehenengo zubi tirantedunetakoa izan zelako. Inaugurazioa, erratuta ez banago, 1974ko ekainaren 15ean egin zuten. Egilea, Juan Batanero izan zen, bide, kanal eta portuetako ingeniari trebea, ingeniarien eskolako katedratikoa.

Eraikitzerakoan oraindik ere portu-lanak egiten ziren Uribitarteko kaian. Horregatik galibo (ur azalaren gainetik altuera librea) handia eskatu zioten, 23,6 metro alegia. Gainera, taula aldapatsua behar zuen, Mazarredo eta Errekalde etorbideko ibarretik Loruri (Ciudad Jardin) aldeko ibarrera igo behar zuelako.

Inguruari eragindako kaltea nabarmen leundu du Guggenheimek. Museoak bere baitan hartu du eta bien artean multzo bakarra osatu dute. Multzo horren forma eta osaketa ulertezina izango litzateke zubia bertan ez balego.

Gaur egun bidezubia guztiz degradatuta dago, zoritxarreko Artxandako tunelak direla eta egindako asfaltatu berria izan eze.



IÑAKI URIARTE

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Etxebarria, Irune
Berro, Iratxe Ruiz,
Erdoitza Martínez
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia, Itxaso
Perez, Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde, Igor M.
de Vidales, Santutxuko
Berto Eskola, Iñaki
Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Zuriñe Martínez

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.200

SANTUTXUKO JAIETAN TXONBO!

Iazkoak baino biziagoak izan dira aurtengo festak

Sentitzen dugu baina notizi ez hain on batekin hasiko gara: Santutxuko jaiak amaitu zaizkigu. Baina ez gaitezen negatiboak izan eta, buelta eman ez, aurten Santutxura eta jaietara hurbildu zareten guztioi, zorionak!



**IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO**

Santutxu kalea, 46
Tfnoa: 944 333 935 www.bilbaoweb.com/Spedro
Santutxu kalea, 37 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com
Tfnoa: 944 128 714

**HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE**

GABRIELARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

☎ 94 412 82 74

O.P.E.: 02/9/97

CYBER TIME
Ordenagailua gurea da
ideiak, zureak

Sarean jolastak
Internet
Inprimaketa
Eskanerra
Datu grabaketa...

Aita Pernet, 1
48004 Santutxu Bilbo
Tfnoa/faxa: 94 459 74 06
E-mail: cyber-time.euskalnet.net
http://www.cyber-time.euskalnet.net

Testua: *Arrate Diez*
Argazkiak: *Iñigo Azkona*

Zergatik zorionak? Laz antolatutako jai ekitaldiek lortu ez zuten arrakasta erdietsi dute aurtengoek. Beraz, pozik egoteko modukoa da, parte hartzaile ugari azaldu baita jaietako ekitaldietara. Beno ba, has gaitzen bederatzi egun hauetako gorabeherak kontu-kontari. **Lehen larunbatean**, urtero ohi denez, koadrilen bazkariak eman zion Santutxuri lehenengo jai giroa. Arratsaldean pregoiak jaiet hasiera ofiziala eman zien eta guri asteburu bikaina emateko aukera.



Lehenengo zapatu gaueko giroa ederra izan zen eta jende aldetik, jai guztietako egun multzotsuenetakoa izan zen.

Asteburuko ajeak kentzeko eta aste berriari hasiera emateko, astelehenean kirol apur bat: futbito txapelketak, koadrilen arteko herri kirolak eta irristatzen ikasteko tailerrak

arrakasta handia lortu zuten. Arratsaldez ikurrinari omenaldia egin zitzaion Sei Izar plazan eta gauean emakumeen afariak txosna gunea alaitu zuten.

Asteartean, egunean zehar Karmelo plaza ziza eta perretxikozaleen paradisu bilakatu zen. Bertara azaldu zirenek ikusteko, ikasteko eta, batez ere, dastatzeko parada eduki zuten. Gauean, gazte eguneko kon-


Bederatzi eguneko jai aldiari azken trakak eman zion datorren urtera arteko despedidea

tzertua nagusitu zen Basarrate landan. Kontra, Maldan eta Sekula Santan taldeak aritu ziren, zein baino zein finago. Gaueko hamar eta erdietan, gaztetxeen aldeko kalejiran hainbat lagun batu zen auzoan zehar autogestioa aldarrikatzeko.

Asteazkenean helduta, urteroko txitxiburduntzi egin zen txosnetan eta janarekin batera, bertso doinuak nagusitu ziren. Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga izan ziren horren arduradunak. Ateratako txartel guztiak saldu ziren, baina, kontatu digutenez, afaltzen egon zirenen artean bazeuden euskaraz tutik ere uler-tzen ez zutenak. Tripatik bertsozaletuko ote zaizkigu? **Ostegunean** Edurne Pasaban mendizale tolosarrak hainbat lagun batu zuen Maria Reina elizako aretoan. Makalurako espedizioko filminak erakutsi zituen eta aho bete hortz utzi zituen bertan bildutakoak. Gauaz, txosna gunea traje eta gala jantziez bete zen eta strip-tease eta guzti ikusi genuen play back lehiaketan.

Ostiralean, emakumeen erasoan aurkako kalejira jen-

detsua egin zen Santutxuko kaleetan barrena. Gauaz, Basarrateko bazterrak jendez lepo eginda agertu zitzaizkigun rock kontzertua ikusteko. Ken-7 eta EH Sukarra izan ziren arduradunak, baina Otxarkoagako 'Waldheim' taldeak eman zuen zer esan gehien. Izan ere, banda jendetsu hori izan zen jaietarako eraturako bertoko musika taldeen lehiaketako irabazlea. Estilo berezi baten jabeak, 'Waldheim' jaietako sorpresa izan dira. Larunbatean, preso, errefuxiatu eta iheslarien aldeko bazkarian 80 lagun batu



BEDERATZI EGUNETAKO BEDERATZI SEKRETU

1. Azkenean Santutxuko jaiak beti bezala egin dira. Bilboko Udalak urte osoa zehar eman ostean, beste auzo batzuetako festak arrazoi barik 'hondatu' ondoren, Santutxun behintzat araudi berriak ez du eraginik izan. Hori bai, asteen zehar musika gauerdian amaitu da txosnetan. Bake santuan egin dira jaiak, Bilboko Udalak beste toki batzuetan -Deustun, esate baterako- egiten utzi ez zituen baldintzetan.
2. Egunik jendetsuenak, gure korrespondentzalek egindako zenbaketa zientifikoa araberan, lehenengo larunbata eta ostirala -kontzertuko gaua- izan ziren.
3. Jaietako sorpresetako bat irristatzeko ikastaroak izan dira. Jendearen erantzuna polita izan da eta, itxura guztien arabera, segida edukiko du hurrengo urteetan.
4. Beste sorpresa handia 'Waldheim' taldeak eman du. Otxarkoagako musikarien jardunari jende askok erreparatuko dio hemendik aurrera. Asteartean jo zuten beste taldeek ere -Maldan, Kontra eta Sekula Santan- maila ona eduki badaukatela erakutsi zuten. 'Waldheim' izena, antza, gaztetan nazi eta heldutakoan Austriako kantzilerra eta Nazio Batuen idazkari nagusia izan zen Kurt Waldheim hari hartu diote.
5. Eguzki-Kakitzat, AEK-Asapala, Ibarsusi futbol taldea, Santutxu Hockey taldea, Gaztedi dantza taldea, Sorgintxuliduna, Santutxu Futbol taldea, Ikasle Abertzaleak eta Amnistiaren aldeko mugimendua. Hona hemen aurten jarritako bederatzi txosnak. Ah! Eta Salchichautorekin hamar.
6. Pregoiaren ohorea Sorgintxuloko gaztetxeari eman zioten. Gazte batek irakurri zuen, euskaraz, baina zoritxarrez ez zen gure hizkuntzan aise eta goxo irakurtzeko gauza.
7. Zazpi dira jai batzordeak aurten zozketatu dituen urdaiazpikoak. Hilaren 14tik 20ra egunean pernil bana eman dute boletok erosi dituzten artean.
8. Sorgintxuloko txosna izan da, aurten, arrakastatsuen. Gazte jendea parrandazaleena izan ohi delako agian? Edozelan ere, eurak izan dira gauero-gauero, etxera joaten azkenak.
9. Aurreko urteetan ez bezala, aurten eguraldiak bakea eman die Santutxuko jaiet. Zelako uztaila izan den kontuan hartuta, ezin gara kexatu!

ziren Basarraten. Bazkalostean senideak omendu ostean, gaueko hamaiketan errepresaliatuen aldeko brindisa eta gero kalejira egin zuten ehunka lagun Santutxuko kaleetatik. Txosna gunean larunbat gaua arin joan zen 'Izotz' berbena taldearekin. Baina hasten den guztiak amaiera behar duenez, konturatu orduko domekara heldu ginen. Goiz partean, Bizkaiko Gaiteroak ibili ziren auzoko bazterretan saltsa eta alaitasuna zabaltzen. Ordurako bakailao usaina nagusi zen, erabat, Basarraten, behar den moduko txapelketa antolatuta baitzegoen. Arratsaldez, Indarra taldearen bilbainadak agurraren hasiera izan ziren. Bederatzi eguneko jai aldiari azken trakak eman zion datorren urtera arteko despedidea.

Salaketak Enkestak
Txaskarrilloak Otxarkoaga eta txurdinagan
WWW.PA-YA.ORG
Berriak Herri mugimendua Euskal kultura
Gure presoak Pa...yak baditu alternatibak



A T U G U R E R A

A T U G U R E R A

BEGOÑAKO KOFRADIAK

Begoña eta Euskerea

Testua: Joseba Etxebarria

AURREKO BATEAN BEGOÑAKO KOFRADIA AUZO KOFRADIA ETE ZAN ALA EZ EGITEN GENDUAN GOGOETA, IZAN BE DATO ASKO DAGOZ DANTZAN.

Batetik esan deigun argi baserriaren presentzia, maatza eta txakolina ugaria zan gure Euskadiko txoko honetan, ez dala kondaira edo eta antropologoen kontua, kontrakoa baino, orain dala urte gitxi desagertu dala paisaiatik eta ekonomiatik: 35 bat urte izango dira, fisiko, bota egin zeuriezela, oindino gelditzen diren baten batzuk edo zatiak kenduta.

Sasoi horretan gizonezkoek soldata irabazi egiten zurien kanpoan bearra eginde, Etxebarria eta Boluetako Santa Ana fabriketan batez be antza, baine bestetik etxekoandreak, egunero, ortuko gauzak saltzen ebazan Erriberako plazean, bendeja egiten eban, hori ba zan beste diru iturri bat familiarako. Gero ba egoan Domu Santu Egunerako lore koroak egitea eta saltzea, txakolina be zelan ez ba... Ekonomia mixta edo esaten jako horri, hau da, edozein modutan be baserri ekonomiatik etorrita, baserri mundutik sortuta eta baserriaren oitura eta usadioen iturrietatik edanda, geitu deigun honeri hemengo jendea ez zala, antza, industriara joaten hasi, bearrean, aurreko mende hasiera arte edo (1900. inguru), bearrean baite euskara galtzean be zoritxarrez.

Kontua da auzo kofradiaren aztarnak Begoñako-



an, logikaz bai..., nekazal munduak Euskal Herrian ezaugarri batzuk euki dauz eta gure ingurune honetan ez zan arraroa izango auzo kofradia bat, ala bere hondakinak, topatzea, izena bera baino izana da kontua eta hor ba dagoz detaile batzuk, garrantzitsuak ez ba dira be, oso kuriosoak bai beintzat.

PORRETA

Bata da "porreta" deitzen zana, izen horregaz heldu jaku baine kontua da zer zan eta zelan ta zertarako. Jakin ba dakigu 1910.an batu egiten zala oindino, eta oso modu bitxian: baserri konkreto batean eta urtero, bazkide guztiak pagatzen zeurien kuota moduko bat, kontua da segun eta nor zan diru kantitatea be diferentea zala, auzo kofradietan ordainsaria fogeraren arabera da, kofradeek pagatzen dabe euren baserria fogerara osokoa, erdikoa, irurdenekoa edo bazan. "La ermita ha sido lugar de reunión de las casas que configuran su vecindad. Esta reunión respondía, en ocasiones, a la existencia de una institución consuetudinaria que atendía a los asuntos concernientes a una colectividad de pequeñas dimensiones cual era la vecindad, auzoa. Esta institución era denominada Cofradía y ofrecía en su estructura y en

su funcionamiento hay un paralelismo con la entidad civil que adquirió rango público con el paso del tiempo y vino a denominarse Anteiglesia. La Cofradía aparece como una federación de casas primigenias, con su sistema de elección de cargos, con capacidad de emitir decretos y de organizar las tareas comunitarias...

...en los entornos vecinales de las ermitas funcionan todavía asociaciones e carácter social: hermandades de ganados, cofradías de pescadores, o cofradías de carácter religioso vinculadas en todos los casos a la advocación patronal..."

(Gurutzi Arregi- "Origen y significación de las ermitas de Bizkaia")

Ba dakigu be bai bere zereginetako bat bazkideen elkar laguntza zala, baten bati beia tragau edo halako zeozer pasau ezker. Izenagaz egon leikkeen nastea dala ta, erlijioso ala laikoa bazan gure dot esan, badago antzineko testu bat nere iritxiz naiko bitxia dana, Juan Ramon de Iturriza jaunak 1784 urtean idatzitako "Historia general de Vizcaya" liburuan:

"Confina esta anteiglesia de Begoña por la parte oriental con la de Echebarri por el regato llamado Azcaraibecoa, por el norte con la de Deusto por el



arroyo de Artazarmina ó la grúa del Campo Bolantín, y por el poniente con la Villa de Bilbao....y el fiel que le rige el voto y asiento 36 en las juntas generales de Gernica- Hay en esta anteiglesia de Begoña doscientas veintiseis fogeras con sus cinco Barriadas, ó Cofradías, que son las de Begoña, ó Ocharcoaga, Calzadas, Achuri, Bolueta y Urbarri..."

Beste gauza batzuk badagoz, beste barik auzoko jaia San Isidro izatea, nekazarien patroia bera eta lotuta guztiak: porreta, Cofradia, "Hermandad de labradores y ganaderos de Begoña", geroago "Sindicato..." izango zana...

Lanbroa

ARTESANIA LOIDI
Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 94 473 10 65

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfoa: 412 48 59

BERAZ
ERAZ
GON
E
GON

E
G
O
N
E
R
A
Z

Galtzagorri, haur eta gazte literatura ereiten

Duela hamar urte sortu zen haur eta gazte literatura sustatzeko asmoz. Azken lau urteotan bultzada ederra hartu du eta oso elkarte eraginkorra bilakatu da. 'Galtzagorri' elkarte da eta bi egoitza ditu. Bata Donostian eta bestea gurean, Begoñako Andra Mari kalean. Eta lehendakaria ere mahatsorria du, Aurelio Erdozain. Berarekin eta Alaitz Muro Larizgoitiarekin egon gara berbetan, 'Galtzagorri' ren nondik norakoak ezagutzeko asmoz.

Duela hamar urte sortu zen haur eta gazte literatura sustatzeko asmoz. Azken lau urteotan bultzada ederra hartu du eta oso elkarte eraginkorra bilakatu da. 'Galtzagorri' elkarte da eta bi egoitza ditu. Bata Donostian eta bestea gurean, Begoñako Andra Mari kalean. Eta lehendakaria ere mahatsorria du, Aurelio Erdozain. Berarekin eta Alaitz Muro Larizgoitiarekin egon gara berbetan, 'Galtzagorri' ren nondik norakoak ezagutzeko asmoz.

Galtzagorrik urrian ipuin kontalarien jardunaldiak eta erakusketa antolatu zuen Begoñako auzo-etxean. Horixe dugu, beharbada, gure artean elkarte ezagutzera eman duen ekitaldia. Baina Galtzagorriren jarduna aspalditik dator eta Euskal Herriko hainbat bazterretara hedatzen da. "Sortu, 1992 urtean sortu zen elkarte, gehien bat haur eta gazte literatura egiten zuten idazleek elkarrekin gisa. Baina 1999an 'Galtzagorri' berebiziko bultzada hartu zuen eta, Mari Jose Olaziregiren eskutik, erabat zabaldu zen", azaltzen du Aurelio Erdozainek.

Horrela 'Galtzagorri'k idazleak ez eze irudigileak, bibliotekariak, zaletuak, irakasleak eta editoreak bildu zituen bere baitan. Gasteizen biltzarra egin zuten eta gaur egungo proiektu asko orduantxe jarri zituzten abian. Esate baterako, Begoñako auzo-etxean 'Euskal irudigileen aretoa' zabaldu zuten, haur eta gazte literatura ilustratzen diharduten hamazor-tzi egileen lanak erakusteko. Areto hori Durangon, Gipuzkoan eta Galizan eduki dute ikusgai eta gaur egun interneten bisita daitezke.

Gainera, urtean birritan 'Behinola' aldizkaria plazaratzen dute. Honez gero seigarren zenbakia kaleratu dute. Eta lehengo urrian, esan legez, Begoñako auzo-etxean herri ipuinen biltzarra eratu zuten, hainbat tokitako ipuin

Testua: **Hektor Ortega**
Argazkiak: **BERTON**



kontalarien eta irakasleen laguntzaz. Hurrengo erronka, azaroaren 14tik 16ra Donostian egingo duten 'Haur poetaren biltzarra' izango da.

PIRATAREN BISITA

Baina orain artekoak ikerlariarentzat, profesionalentzat eta umeentzat eginikoak izan arren, badira beste batzuk haur-errentzat beren-beregi prestatutako ekitaldiak. Hortxe dago, esate baterako, 'liburuaren altxorra', herri txikietakoko eskoletarako bereziki pentsatutakoa. "Pirata bat azaltzen da eskolako umeen aurrean eta bere abenturak kontatzen dizkien bitartean bere kutxa bertan laga behar

duela esaten diete. Barruan bere altxorra dago, gorderik. Pirata joandakoan, umeek kaxa zabaldu eta harrিতa gelditzen dira liburuak daudela ikustean", argitzen du Alaitz Muro Larizgoitiak.

Kutxa hilabetez gelditzen da eskola horretan eta bitarte horretan umeek hartu eta etxera eraman ditzakete liburuak. "Emaitzak oso onak izan dira orain arte. Gehienak askoz ere gehiago irakurtzen dute garai horretan, sarritan eskolako liburutegian bertan dituzten liburuak badira ere". Pirata Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako herri txikietan egon da bisitari, baita Gasteizko auzo batzuetako eskoletan ere.

'Galtzagorri' elkartearen asmoa, berez, haur eta gazte literatura sustatzea da, esan legez. "Euskal Herrian, jakina, euskarazko haur eta gazte literatura bultzatzen dugu gehien bat", diosku Aurelio Erdozainek. Zeregin horretan Galizako, Catalunyako eta Espainiako elkarteekin bat eginda daude OEPLI erakundean. Eta haren bidez IBBY nazioarteko elkartearen ere partaide dira. OEPLI-ko urtero 'lazarillo' sariak banatzen ditu lau elkarten hizkuntzatan.

Orain arte esandako guztiaz gain, 'liburu gaztea' - aurretik aukeratutako lau liburuak irakurtzen dituzte gazteok eta euren iritzia ematen dute gero-, eta 'idazle gaztea' bezalako ekimenak jarri dituzte abian.

HARRY POTTERREN GARAIA

Euskal haur eta gazte literaturaren etorkizunaz galdetuta, Aurelio Erdozain baikor agertzen da. "Optimistak izan gaitzke. Maila ona dago eta horren adierazlea da euskaraz egiten diren asko beste hizkuntzetara itzultzen direla. Hortxe daude Bernardo Atxaga, Mariasun Landa edo Patxi Zubizarretaren kasuak", diosku. Irudigileen maila ere on-ona dela nabarmentzen du.

"Harry Potterren liburuak gaztelaniaz eta katalanez batera argitaratzen dituzte, euskaraz urtebete geroago eta galizieraz oraintsu aterako dute lehena"

"Orain arte hutsune bat zegoen, albumak ez baitziren argitaratzen". Albumak ilustrazioak nagusi diren liburuak dira, normalean luxuzko edizioetan argitaratuta. Bestalde, Erdozainek iritziz egon badago arriskurik. "Nire ustez superproduktzioa dago gaur egun, lar editatzen da".

Harry Potter erabil daiteke gure egoera zein den argitzeko tresna gisa. "Harry Potterren liburuak katalanez gaztelaniaz argitaratzen diren unean bertan plazaratzen


dituzte. Biak batera. Euskarazko bertsioa, oster, urtebete atzerago eman zuten argitara eta galizieraz orain aterako dute lehenengoa", azaltzen du Erdozainek.

Hala ere, ume euskaldunak erdal liburuekin ibiltzeko arrazoi bakarra ez da itzulpenak geroago iristea. "Inguru erdaldunduetan, Bilbon esate baterako, ume euskaldun gehienek errazago irakurtzen dute erdaraz euskaraz baino. Gainera, euskarazko liburuak gozatzeko baino ikasteko ikusten dituzte".

Edozelan ere, euskal literaturak eman ditu atal honetan ere bere best-sellerrak. "Duda barik, Bernardo Atxagaren 'Behi baten memoriak' izan mota horretako fenomenorik nabarmenena", diote.

Guztira, Galtzagorrik 200 bazkide biltzen ditu bere baitan. Hiru langile ditu, bat egun osoa lanean eta beste biak egun erdiz. "Ea udazkenetik aurrera hirurak egun osoz jartzen ditugun lanean", dio Erdozainek. Hala bedi eta segi euskal literatura sustatzen!

KONTAKTUETARAKO:
Galtzagorri elkarte
Begoñako Andra Mari kalea, 16
www.galtzagorri.org



ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabilta

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

Sugea taberna



Iturriaga, 92 Santutxu

BASTERTXU



TABERNA

Ricardo Bastida plaza

Ikertzaile baten aburuz, Zurbaran auzotik gora igotzen zuen Egirleta gainera

DONE JAKUE BIDEAREN SAIHESBIDEA


Testua: *J. Larrazabal*
Argazkiak: *Iñigo Azkona*

Done Jakue edo Santiago bidearen nondik norakoak argitzeko lan mardula eginda daude Eusko Ikaskuntzako ikerlari batzuek. Horren ondorioz, besteak beste, kamino ospetsu hori Begoñan nondik nora zebilen argitu dute. Eta askok kontrakoa pentsatzen bazuten ere, ez dirudi Begoñako elizaren ondotik pasatzen zuenik.

Maria Jesus Fernandez Fonseca ikertzaileak 'euskonews' aldizkari elektronikoa eman ditu jakitera Eusko Ikaskuntzarako egindako azterketa sakonaren emaitzak. Berarekin batera Ana Isabel Prado aritu da ikeritzen. Eurek Bilbo-Gernika bide zaharra esaten diote Done Jakue-rako kostaldeko bideari. Kamino hori bera zen ere Bizkaiko Jaunek -eta Andreek-foruak zin egitera zetozenean erabiltzen zutena (ruta juradera, erdaraz). Izan ere, foruak lau tokitan zin egin behar zituzten: Bilboko ateetan, Larrabetzuko Goikoelexean, Gernikako arbolaren azpian eta Bermeoko Santa Eufemia elizan.

Adituen ustez, bide horren jatorria erromatarren garaikoa da, behintzat. Bilbo-Gernika bide horretan erromatarren hainbat aztarna agertu da Lezaman (Berreteaga), Larrabetzun, Morgan, Gernikan, Forun, Mundakan (Portuondon) eta Bermeon. Garai hartan Kantauri itsasoko kostalde osoaren ondoan bide sare bat egon zela pentsatzen dute ikerlariak. Horrela, itsasertzeko hainbat tokitan ezarritako 'statione'-en arteko komunikazioa erraztuko zen. Leku horietan hartzen zuten babes eta behar adina jaki kostatik hurbil nabigatzen Mediterraneo eta Ipar Atlantikoa lotzen zituzten itsasuntziek.

Geroago Donejakue bidea izan zen. Gipuzkoako kostaldetik Mutrikuko mendietatik Bizkaian barrena sartzen zen. Markinan egon ostean, erromesek Ziortza, Gernika, Morga, Larrabetzu, Zamu-



dio, Begoña eta Bilbo zeharkatzen zuten. Eta are geroago Bizkaiko jaunak foruak zin egiteko kamino bihurtu zen. XVI. mendetik aurrera Bilbo-Gernika erret bidea esaten zitzaion eta XIX. mendearen hondarretan 'Bilbo-Gernika bide zaharra' izena erabiltzen zuten. Kamino zahar hori XX. mendera arte indarrean egon da eta bide ondoko herrietako jendearen oroimenean gorderik dago haren arrastoa, toki batzuetan zehatz-mehatz non zegoen ez zekiten arren.

Horixe dugu, esate baterako, Begoñaren kasua. Maria Jesús Fernandez Fonseca ikertzaileak argitzen duenez, bide hura Bilboko Done Jakue elizatik bertatik hasten zen eta Zamudioko Atetik irtenaz, gaur egungo Unamuno plazara iristen zen. Bertatik Begoñarako bidea hartzen zuten Mallonako kaltzadetatik gora, Gurutzearen komentuari ondotik pasatuaz.

Izan ere, Mallonako kaltzadak dira "bide honetako zati guztietatik egokien gorde dena". 1745ean



zaharberritu zituzten eta oraindik ere zeuden bezala ikus ditzakegu. Behin gora helduta, ezkerrean Mallonako kanposantu zaharreko arkoa utzita -1826an eraikia-, bideak aurrera egiten zuen. Baina ez Begoñako elizarantz, ez. "Bideak aurrera egiten zuen Polboretzeko estartatik. Gaur egun bide zehatza Etxebarria parke inguru horretan galtzen zaigu, bertan XX. mendearen azken urteetan aldaketa han-

BEGOÑAKO BIDEAK

Done Jakue bidea ez zen Begoñako lurretatik zeharkatzen zuten kamino bakarra. Auzo bideak ere baziren, baita XIX. mendetik aurrera egin ahala indar handiagoa hartu zuen Bermeorako erret bidea.

Maria Jesus Fernandez Fonseca dioenez, garai hartarako Done Jakue bide zaharra behar den moduan mantentzeko kezka inguruetako auzoek baino ez zeukaten. Batez ere Lezamakoak eta Zamudiokoak. Hain zuzen ere, herri horietako bizilagunak Bilbora etortzeko erabiltzen zuten. Arrazoi bi zegoen horretarako. Batetik, arinago iristen zelako. Bestetik, merkeagoa zelako. Merkeago bai, ez baitzuen bidesaririk.

Hala ere, kontu horrek kalapitarik ekarri behar zuen. Izan ere, Done Jakue bide zaharra eta Bermeorako erret bidea Egirletan elkar zeharkatzen zuten, non eta Bermeorako bideak 'katea' -bidesaria kobratzeko tokia- zeukan lekuan. Esan daigun, bide batez, hortik zetorkiola izena 'Katezarrar' txakolindegari izena. Jakina, katean batzuei eta besteei kobratu nahi zieten eta arazo ugari bizitu ziren.

Urteak aurrera joan ahala Done Jakue bidea galdu zen. Lezamako eta Zamudioko batzuek oraindik ere XX. mendean Bilbora joan-etorriak egiteko erabiltzen ei zuten.

GOÑAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22



Santutxuko poteo gunean



Part. Arsuago SANTUTXU
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz



*Adituen ustez,
bide horren
jatorria
erromatarren
garaikoa da*

EGIRLETATIK ZAMUDIORA
Behin Egirletan, bideak norantz egiten zuen zehaztea ere ez da erraza izan. Batzuen iritziz, Santa Marinatik Lezamara jaisten zen. Beste batzuen aburuz, ostera, Egirletatik Zamudioraino hurbiltzen zen. Fernandez Fonseca eta Prado Antunezen ikerketak argitasuna eman dio zalantza horri. Egirleta gainetik Iturritxoalde (Avril) mendira segi-

diak egin dituztelako", dio Maria Jesus Fernandezek bere artikuluan.

"Dokumentazioak, inguruan bertan egindako araketak eta antzinako kartografiak emandako datuen argitara, bideak Zurbaran auzotik gora jarraitzen zuela pentsa daiteke". Hipotesi horren arabera, Done Jakue bidea gaur egungo Zumalakarregi etorbidea Begoñalde etxe-multzoaren ondotik zeharkatuko zuen handik Egirletara (Santo Domingora) igotzeko.

Bide horrek Begoñako elizaren ondo-ondotik pasatzen ez bazuen, geroagokoek bai. Eta bide ezauna izan da Egirletara igotzeko hala kaltzadetatik Begoñaraino nola Zabalbidetik Begoñako elizaren atzealderaino. Eta hortik gora Egirletara.

tzen zuen bideak eta gero Mendigana eta Gaztañazabalagatik Zamudiora hurreratzen zen. Herri horretara Uxina baseritik eta Larragoiti dorre ingurutik iristen zen.

Behin Zamudion bideak Lezamara, Larrabetzura eta Aretxabalaganara jotzen zuen. Handik Gerekizetik, Muxikako Ugartetik eta Lumotik, Gernikara.

Ikerketa egin dutenek nabarmentzen dutenez, Done Jakue bide zahar horrek garrantzi aparta eduki zuen Bilborako eta, oro har, Bizkaiarako.

Informazio gehiago gura duenak
www.euskonews.com

helbidea sakatzea besterik ez dauka.
170 zenbakian agertu da aipatu artikulua.

e
i
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a


Itziar Lazaro

"Otxarkoagak ezagutzen gaitu eta errespetatzen gaitu"




Txurdinagan bizi da. Mahatserriko bilbotarra, Itziar Lazaro Peña Pa... Yan ibiltzen hasi zen konpartsak indarrean urte batzuk zeramatzanean. Orain dela hilabete pare bat konpartsaren lehendakari izendatu zuten. Kargua Aste Nagusian estreinatuko du eta, hori baino lehen, gu berarekin egon gara, Otxarkoagako konpartsaren gainean zer edo zer gehiago jakiteko gogoaz.

Testua: *Itxaso Perez*
Argazkiak: *Itigo Azkona*



Kupoi hau Santutxuko AEKn (Arbidea 21) aurkezten duenari BI EUROKO DESKONTUA egingo zaio 'Euskara Mendian' liburua erosterakoan.

BERAZ, 5 EUROTAN SALDUKO ZAIO.



Euskara
mendian

Zelan sartu zinen konpartsan?

Badakizu, sarritan elkarrekin ibiltzeak zerbait berezia sorrarazten du. Egun osoan jende honekin ibili eta gero, eurak konpartsa izatera finkatu zutenean, azkenean neu ere barruan sartu nintzen. Hasieran auzotik giro jakin batean zebilen jendeak zerbait egiteko asmoa eta beharra ikusi zuen, batez ere Otxarkoagako jaiak hurbiltzen zirenean. Konpartsa kimua sendotuz joan zen eta azkenean Peña Pa...Ya sortu zen. Eta ni koadrila horretako jende batekin nenbilenez, azkenean ni ere kutsatu egin nintzen.

Zer da konpartseroa izatea?

Ondo pasatzea...

Eta Pa... Yako konpartseroa?

Gauza bera, baita erridikuloan geratzeko ardura handirik ez izatea, ahal bada. Gero ere, Bilboko jaietan presentzia izatea, talde gisa parte hartzea. Bestela, bakoitzak bere bidetik ibiltzeak ez luke zentzu handirik izango.

Oraingoa konpartsa lehendakaria izatea egokitu zaizu.

Lehendakaria izatea batez ere gauza burokratiko da, lana denen artean egiten baitugu. Gauza sinboliko da. Hori bai, gura baino gehiegitan argazkiren batean agertu beharra, ... baina, benetan, ez dut "marroitzat" jotzen.

Argazkietan agertzea ez zaizu gustatzen ala?

Talde argazkietan agertzea gauza bat da. Beste motatakoak, aldiz, ... nahiago dut ez egitea.

Zer dakarkizu ardura horrek?

Argazkietakoaz gain, sariak banatzea, ... orain ez asko Txantreakoek emandako hainbat oroigarri jaso behar izan nituen denen izenean. Gero, hemen eta han sinatu beharra, elkarriketak eskaini behar izatea...

Baina konpartsa honek historiatxo badauka dagoneko. Nondik dator eta norantz doa?

Esan dudanez, ni ez nintzen konpartsa barruan egon bere hasieran. Hasiera hori apur bat "espontaneo" izan zen. 89 edo 90ean Iparraldeko Patxa taldearekin adiskidetzeari egin zen -gustua hartu diogu adiskidetzeari-, eta hortik peña osatzeari ideia finkatzen hasi zen. Silvio Rodriguezen kontzertua 1993ko udan egin genuen eta urte bereko urrian Lenin Eguna etorri ziren. Gaur egun leku askotan dagoen konpartsa da, presentzia handia ez daukan arren. Badira suspertzen ari den hainbat gune: Justuegune da horietako bat, eta bestea, Bilboko Aste Nagusian txosnarekin. Konpartsa martxa edo ibilbidea egutegiak zehazten dio, aurrean aipatu ekitaldiekin, baita bat-batean agertzen diren bestelakoekin ere.

Eta auzoari begira?

Nik uste dut auzoan ezagutzen gaituztela, baita errespetatu ere. Bertan ahal dugun gauza guztietan parte hartzen saiatzen gara. Hala ere, uste dut ere auzoa albo batean utzi dugula azkenaldi honetan, eta hori akatsa

izan da, ez garelako egon behar izan gaituzten leku eta ekimen guztietan. Beste urte batzuetan bai egon da jendea ganora handiagorekin. Auzoko jaiak buruz ari naiz. Aurten, ordea, erru osoa ez da gurea izan. Jai batzordearekin gorabehera batzuk izan dira jai egitarau-liburuxkan agertu behar zen gure publikitatearekin, irudi bat zela-eta. Beharbada gure aldetik utzikeria izan da. Beste aldetik Txokoa dago. Hasieratik gure asmoa izan da auzoari zabalik egotea, horri garrantzia berezia eman diogula, jendeak peñan parte hartzen anima zedin. Batzuk bai animatu dira, baina ez guk nahiko genuke beste. Egun 50 bat kide gara.

Lehen aipatu dituzu hainbat ekimen...


Auzoan egin ditugun gauzen artean euskal kulturaren inguruan izan dira gehien bat, gauden lekuan gaudelako. Auzo honetan euskal kulturaren alde egin diren gauzak Euskal Txokotik eta Pa...Yatik bideratu dira. Adibidez, auzoko jaietan dantzaldia eskaini behar zuten taldea abestiak euskaraz ere egiteko ziurtatzen genuen. Nire ustez, egon garenean igarri egin da. Jarduera askotan egon gara, baina beste hainbestetan gure jarduera baldintzatu ta egon da. Euskara talde bat sustatzen saiatu ginen, auzoko eskolatan D eredu egon zedin,.... baina azkenean, jendeak beren haurrak beste eskolara eramaten baditu, lana bertan behera geratzen da.

Zer sentitzen da Bilboko konpartsa jatorrenetarikoa baten lehendakaria izanik?

Ezer berezirik ez, egunerokotasunean eraginik ez duela. Lana beti dago, baina denontzat, eta batzuetan neketu suertatzen bazaigu ere, gero esker onekoa izaten da emaitza. Gozatu egiten da, alegia.

Lana aipatu duzu. Zer prestatu digu aurten Peña Pa...Yak?

Ekinean Txantreako Peña Armoniako jendearekin bildu eta adiskidetzeari hasi ginen udako egitaraua. Hurrengo ekitaldia Justueguna izango da, abuztuaren 3an, Tetuane landetan. Ea eguraldi ona lagun izaten dugun egun horretan! Ondoren Aste Nagusirako urtero lez hainbat eta hainbat kontu pentsatu dugu. Aurreko urteetan bezalaxe, goizero fanfarre baten laguntzaz poteoa egingo dugu. Ibilbidea ez dugu zehaztu, hori bidean hasi eta gero egingo dugu. Eta arratsalde batean sardinak erreko ditugu. Hau dantzaldi pare batekin batera, Arizgoiti taldearekin. Beste egun batean Txan Magoa



ekarriko dugu. Musika disko eta halakoak gustuko dituztenentzat DJ bat egongo da. Bazkariak egunero, baina batek nazioartekoa, herrien arteko izaera edukiko du. Saiatu eta lortu nahi duguna da ez egitea bakarrik Aste Nagusian beti egiten diren gauzak, jai animatu eta alaitu jai eremua. Helburua ondo pasatzea da, baina jendea parte hartzeri gonbidatu nahi dugu jaietan parte hartzen eta txandak egiten, guri apur bat laguntzen, disfrutatzeko,...

Gonbidapen zabala dirudi...

Beharbada oso ondo transmititu ez den gauza da ondorengo. Peña Pa...Ya auzoko konpartsa da, baina konpartsa zabala eta irekia ere bada. Gura dugu jende berria sartzea, ...dagoen adinaren bataz-bestekoa kontuan izanda batez ere. Izan ere, bataz-bestekoa ez bada jaitzen, laster jubilatuko beharko dugu-eta! Mundu osoko konpartsa gara. Gurean Usansolo, Galdakao, Abusuko... leku askotako jendea dago - eta euren lagunak, jakina-. Hauekin denekin kontaktu behar dugu edozein gauza egiteko, ona ala txarra izan arren, bestela, haserretzen zaizkigu!



Bestelakorik uda honetarako?

Aurtengo Aste Nagusian txosnako dekorazioak gai zehatz bati lotuta joango da, urtero egin den bezalaxe: gai bat aukeratu eta joratu egin dugu. Baina aurton sorpresa izatea nahiago dugu, sorpresa izatea garrantzitsua delako gure ustez. Pistatxo bat emango dizut bakarrik: gure printzipioekin bat dator.

Zeintzuk dira, ba, printzipio horiek, ideia bat egin ahal izateko?

Laburbilduz, lehendabizikoa, konpromiso sendoa jai herrikoiak eta euskaldunak indartzeko, gure teoria praktikara eramanez. Bigarrena, gure dinamikak baldintzatzen dituzten instituzioek edota interes pribatuek eskaini diezaguketen diru zikinaren menpeko jokoan ez sartzea. Hirugarrena, borrokalaria garen heinean eta halakoak izateak ematen digun poztasunetik gure herria eraikitzea. Laugarrena,

trepa, matxito eta hauek bezalako ematea. Bosgarrena, preso denak etxera itzul daitezela lan egitea. Eta seigarrena, eta agian bitxiena, goxoena, politena, ... Marijaia ilargia ikustera joaten lagundu, estu-estuan, guk ere maite dugula belarrian gozo-gozo xuxurlatzeko. Oinarri hauek 1996eko abuztuan ezarri ziren, Espainian bahituta geundela.

Beraz, Pa...Yan sartu gura duena ados egon beharko luke oinarri hauekin...


Bai, jakina, baina nik uste dut oso garrantzitsua dela espontaneitatea ere. Nire ustez, ondo pasatzeko aitzakian gauzak datozen bezala egiten ditugu, eta gehienetan ondo ateratzen zaizkigu. Askotan ideia bat sortzen da eta hori egitera joaten gara birritan pentsatu barik. Ez da, beharbada, aritzeko erarik egokiena baina kontua da ibiltzea, ez gelditzea.

ZORTZI GALDERA LABUR

- Abesti bat: Pablo Milanesen edozein.
- Idazle bat: Jose Luis San Pedro.
- Liburu bat: "la vieja sirena"
- Pelikula bat: ez naiz oso zinemasalea
- Leku bat: Edozein itsasoaren erdi-erdian
- Janari bat: Entsalada bat bota ahal

- zaizkion osagarri guztiekin
- Izen bat: Nire loba batena, Arrate. espero dut beste lobak ez haserretzea nirekin
- Opor garaian gaudela, hondartza ala mendia?: Aukeratzeari uko egiten diot, biak.

Zer egin daiteke hau bezalako uda hodeitsu batean?



PELLO (TXURDINAGA)

HEMENDIK BESTE INORA ALDE EGITEA EGUZKI BILA. ESATE BATERAKO, KUBA ALDERA EDO HAWAIRA.



KARMELE (SANTUTXU)

TELEBISTA IKUSI. BESTE AUKERARIK EZ DAGO.


MAIDER (BEGOÑA)

KIROLA EGIN. HONDARTZARA OSO GUTXITAN JOAN GARA.



ASIER (SANTUTXU)

AHAL BALDIN BADA, MEDITARRANEO ALDERA JOAN EGUZKI BILA.




XABIER (SANTUTXU)

ZINEMARA JOATEA, MENDIRA JOATEA, BUELTA-TXOAK EMATEA BILBOTIK, ...GAUZA ASKO DAGO BERTAN EGITEKO. EGUZKIA GARRANTZITSUA DA BAINA EZ DA GUZTIA.



NEREA (ETXEBARRI)

ZINEMARA JOATEA, ADIBIDEZ. EDO BESTELA LAGUNEKIN TABERNA BATEAN EGOTEA ERE ONA DA. EDO HONDARTZARA JOAN NAHIZ ETA EZ BAINATU.



ANDER (BEGOÑA)

EZIN DUGUNEZ HONDARTZARA JOAN, BA HIRIAN GERTAZEA ETA HIRIAZ GOZATZEA. UDAN HIRIA ASKOZ ERE JENDE GUTXIAGOREKIN GELDITZEN DA ETA GUSTURA EGON DAITEKE.



AIDA (BEGOÑA)

MENDIRA JOAN EDO HONDARTZARA ERE JOAN DAITEKE, NAHIZ ETA EGUZKIRIK EZ IZAN, HAN EDERTO EGON DAITEKE.

AKARKA

BERTAZ

Aurten hasi behar dituzte Larreagaburuko parke zabala atontzeko lanak

Mirafloreseko biribilguneak berdeguneke hogeita zazpi hektarea erdibituko ditu


Eusko Jaurlaritzak aurten bertan hasi nahi ditu Larreagaburu (Mina del Morro) aldean parke bat atontzeko lanak. Guztira, berdegune berriak 270.000 metro karratuko zabalera edu-

kiko du, baina Mirafloreseko biribilguneak eta bertan elkarlotzen diren errepideek bi zatitan banatuko dute. Horrela amaitutzat joko da bazter mahatsorri horretako urbanizazioa.

Duela bost bat urte hasi ziren Larreagaburu aldeko urbanizazio lanak. Orduan lehenengo etxeak eraikitze-ari ekin zioten. Gaur egun etxe horiek amaituta daude. Erdian etorbidea zabaldu zuten eta orain gutxi hasi dira etorbidearen beste aldeko lanak. Baina asmo guzti horiek etxeak eraikitzeke baino ez ziren. Bigarren atala falta zen. Aspaldiko konpromisoa zen gainerako eremua parke gisa atontzea. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazok (EB) jakinarazi duenez, urte honetan bertan hasiko dira zeregin horretan.

Guztira parke berria 27 hektarea (270.000 metro karratu) zabal izango da, gaur egungo Bilboko parkerik zabalena (Etxebarria) baino 10 hektarea gehiago hain zuzen. Hori alde on-ona da, baina arazoak ere ez dira falta. Batetik, parke hori benetan bakarra izan beharrean bi izango da, bi zatitan banatuko da alegia. Erdian, mugarena egiten, Miraflores gaineko biribilgunea eta bertan elkarlotzen diren errepideak daude eta. Bestetik, gaur egun aldats handiak daude bertan eta, ondorioz, lur mugimendu itzelak egin beharko dira.

Miraflores gainetik eskuinetara, Atxurirantz, lehenengo parke zatia (A parkea) dago. Guztira, 150.000 metro karratu edukiko ditu. Berau da Santutxutik hurren dagoena, bertan eraikitzen ari diren 700 etxebizitza berrien ondo-ondoan. Alderdi honetan urmaelak, pilotalekuak eta rokodromoak jarri nahi dituzte. Gainera, hemen dago gaur egun lehenengo mendiaren azken arrastoak. Horiexek denak kendu egingo dituzte eta eremu lau zabal bat egokituko dute.




AUDITORIOA

Errepidearen bestaldean, Miraflores gainaren eta Ibaizabal ibaiaren artean, beste 120.000 metro karratuko berdegunea atonduko dute (B parkea). Bertan gaur egun Abusu ikastola dago eta bere inguruetan -apur bat gorago, zehatzago esanda- auditorio zabal bat eraikiko dute, 14.000 lagun hartzeko modukoa.

Gainera, inguru horretan ere, antzinako Ubideen pasealekua (Paseo de los Caños) suspertuko dute. Horrela, ibaiertzetik hurbil oinez patxadaz eta gustura ibiltzeko beste aukera bat emango zaie bilbotarrei.

ETXEBIZITZEN BIGARREN FASEA ABIAN DA. Etxeak egiteko bigarren eta azken fasea abiatu da honez gero Mina del Morron. Etorbidearen eta Atxuri arteko eremuan mediterraneo estiloko etxe baxuak eta iladan, Miraflores gainera doan errepide parean etxe altuak egingo dituzte.



LEHENENGO FASEA, AMAITZEAR. Lehenengo faseko etxerik handienak -biribil erdiaren itxuran egindakoak- amaituta daude honez gero. Bakarrik etorbide berriaren ondoko eraikinak falta dira. Guztira 700 etxebizitza altxatuko dituzte lehenengo meategi zaharrear.



MENDIA KENDU ETA PARKEA EGIN. Lur mugimendu itzelak egin beharko dira mendi zati hori parke laua bihurtzeko. Lan horrek 10,4 milioi euro eskatuko du. Parke osoa atontzeko aurrekontua 15 milioiokoa dela kontuan hartuta...



Boluetan legionelosi agerraldirik ez dela dio Udalak

Auzo bat hil eta beste bat gaixotu da azken bi hilabeteotan

Boluetan legionelosi agerraldirik ez dela esan du ozen Bilboko Udalak bere laborategiek azterketa sakonak egin ostean. Susmo txarra uztailan biztu zen, Boluetako bizilagun bat gaixotasun horrek jota hil ostean. Beste bat ekainean gaixotu zen. Udalak jakitera eman duenez, udal laborategiek azterketa egin zuten K.I. boluetarra legionelosiak jota hil eta gero. Udal teknikoek Boluetako hiru hozte-dorretan eta hildakoaren etxebizitzan legionella ote zegoen aztertu dute. Emaizta argia eta biribila izan zen: ez. Horregatik, Bilboko Udalak jakinarazi du "ez Boluetan, ez Bilbon ez dela legionelosi agerraldirik", eta ondorioz, herritarrei lasai egoteko esan die.

2001ean Bizkaian 65 legionelosi kasu izan ziren Bizkaian, eurretarik 31 Bilbon. Aurten beste sei kasuren



berri eduki dute, bi maiztzean, bat ekainean eta hiru uztailan. Bilboko Udalak prebentzioari begira datubasea osatu du instalazio arriskutsu guztien zerrenda eginda edukitzeko. Horrela, Bilbon 138 hozte-dorre eta 20 iturri apaingarri daude. Aldian aldian, udal teknikoek ikuskatzen dituzte, bakterioa ote dagoen jakiteko.

Legionelosi kasuak uztailetik urria bitartean agertzen dira

gehien bat. Gaixotasunaren inkubazio aldia bi eta hamar egun tartekoa da. Legionella bakterioa airean dabilzan ur tanta txikiak arnastean sartzen da giza organismoan.

Boluetako jendea larri ibili da egunotan auzoan kasu bi gertatu zirela jakindakoan. K.I. boluetarraren gaixotasunak, gainera, heriotza ekarri zion oso egun gutxiren buruan.

MASUSTEGIKOAK HASERRE AVENIDA HOTELAREKIN

Masustegi kaleko 17, 19 eta 21 zenbakietako bizilagunak haserre bizian daude Avenida hotelarekin. Parez pare daukate ostatu horretako antenak, zabaltze lanak eta zaratak salatzen dituzte euren leihotetan. Gainera, inguruan tabernak barik dendak nahi dituztela aldarrikatu dute.



E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K

Artsuaga kalea oinezkoentzat bakarrik egokitzen ari dira

Zerbitzuetako ibilgailuak eta garajeetara doazenak baino ez dira sartuko

Santutxuko Artuaga kalea eta inguruak urbanizatzen ari da egunotan Bilboko Udala. Ahalegin horren bidez, lehengo auto saltsa desagertuko da. Merkataritza gune horretara

zerbitzuetako ibilgailuak eta garajeetara doazenak baino ez dira sartuko. Horrela, ia 5.600 metro karratuko kale bazterrok oinezkoen zerbitzura jarriko dituzte

Obrak nahikoa aurreratu daude honez gero. Lanon helburua, udal arduradunen esanetan, "Santutxuko auzoen bizikaltatea igotzea da, ibiltzeko eta paseatzeko leku gehiago atonduaz".

Guztira, Artsuaga kalea, ondokoa, Elizondo, Alacant eta Txomin Agirre kaleak urbanizatu dituzte. Guztira, esan legez, 5.600 metro karratu. Tartean, santutxutarrek 'Sei Izar' deitzen duten txokoa ere.

Bilboko Udaleko arduradunek nabarmendu dutenez, inguru horretako behegaina hondatuta egon da "eta aparkalekuen anabasa begi bistakoa zen". Arazo biok konpontzeko, lehenengo eta behin Artsuaga kalea urbanizatzen hasi dira. Ia dena oinezkoentzat gordeko dute eta 'u' formako jardineren bidez zarratuko diete autoei. Lorontzi handi horiek, gainera, jesarlekuei eusteko erabiliko dituzte.

Kale horretan arbolak ere jarriko dituzte eta, esan



dugun moduan, zerbitzuetako autoak eta garajeetara doazenak sartuko dira bakarrik. Gainerako kaleetan, Luis Luziano Bonaparte, Artsuagaren ondokoa eta Txomin Agirre eta Elizondo, Alacant eta Iturriaga kaleekiko kantoiatik hasita, ibilgailu trafikoa debekatuta egongo da. Errepidea edukiko duen kale bakarra Artsuaga izango da, lehen esan bezala trafiko baimendu batzuk sartuko direlako.


Inguru guztiok oinezkoentzat egokitzeko ahaleginean Txomin Agirre kalera sartzeko aldatsa ere zaharberrituko dute. Jatorrizko egitura gordeko dute baina argiak jarriko dira hala aldatsean nola azpiko pasabidean. Hiru jardinera biribil ere paratuko dute bertan.

Guztira, obra honek 846.000 euroko aurrekontua eskatu du. Viconsan enpresa da lanok egiteko ardura bere gain hartu duena.

ARBIDEA KALEKO 'PLAZABARRI'. Esan eta egin. Aitarren baten egin dira Arbidea kaleko goialdean plaza bat atontzeko lanak. Orainsu arte autoz eta sasiz lepo egin da zegoen bazterra plaza txukuna dugu orain. Ume jolasak, lorategiak, arbolak eta auto gutxi batzuentzako aparkalekuak jarri dituzte.



EGURALDI ZANTARRA. Uztaila joan zaigu eta udaren arrastorik ere ez. Hil osoan egun gutxi batzuk baino ez dira eguzkitsuak izan. Egun gehienetan lainoak, bero gutxi eta euri apur bat eta eguzkirik ez. Horrela gaitza da inor pozik egotea. Ez udatiarrak, ez baserritarak, ezta hil osoa lan eta lan eman dutenak. Argazkian, Txurdinagako udal igerilekuak, uztailaren 23an, hutsik. Ea abuztuak...



Gas plazan esku pilotarako frontoia baino ez dute egingo

Trinketea ere eraikitzeke asmoa bazegoen ere, azkenean ideia hori baztertu dute

Gas plazan frontoi bakarra egingo dute azkenean. Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat ideia erabili dituzte pilotaleku sorta bat eraikitzeke asmoz. Behin betiko erabakia, ordea, hartuta dago: Gas plazan esku pilotarako frontoi handi bat egingo dute, 2.300 lagunentzako tokia edukiko duena.

Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak adostutako proiektuaren arabera, esku pilotarako frontoia egingo da, baina ez edozelangoa, ez. "Munduko txapelketa bertan egiteko moduko frontoia izango da", adierazi dute Diputazioko arduradunek. Guztira 2.300 lagun sartu ahal izango dira pilotalekuko harmailetan.


Gainera, proiektu berriak frontoiari beste eraikin bat atxikiko dio. Etxe horretan pilota federazioek hartuko dute aterpe.

Akordioaren ondorioz, Foru Aldundiak bertan behera utzi behar izan du Gas plazan trinkete bat egiteko asmoa. Arrazoia? Bilboko Udalak frontoia ez ezik, etxebizitzak ere eraiki nahi ditu bertan, operazioa finantzatzeko. Trinketea 'sartu' ezker, etxebizitza kopurua murriztu beharko litzateke eta, ondorioz, etekinak ere.

Guztira Bilboko Udalak 180 etxebizitza, 700 autorako aparkalekua -lur azpian- eta plaza bat 4.000 metro karratu zabal egin gura ditu inguru horretan. Horrela, Gas plaza zaharra desagertuko da eta urbanizazio berriak Etxebarria parkearen eta Udaletxea aldearen arteko loturarena egingo du.

INBERTSIOA

Esku pilotarako frontoi berriko proiektua egiteak 240.000 euroko



inbertsioa eskatuko du. Planak beteko balira, foru arduradunek irailen emango dute proiektu hori egiteko enkargua.

Guztira obra berriak 16,8 euroko aurrekontua beharko du. 2003 urteko lehenengo hilabetean lehiaketa publikoan aterako dute. Behin esleipena eginda, ahalik eta arinen hasiko dira obra horiek. Dena amaitutakoan, Bilbon lehen mailako esku pilota ikusterik izango da.



SANTUTXU SPORT

ALBERTO HIERRO- Cafés Baqué-ko txirrindularia

**"EZ DUT ORDU ASKO EMATEN ENTRENATZEN;
ZENTZU HORRETAN NAHIKO ALPERRA NAIZ"**



Zamorako Itzulian parte hartu aurretik egindako etenaldi batean bildu ginen Alberto Hierroekin. Boluetako hogeita lau urteko gazte honek badaki irabaztea zer den. Izan ere, Madrileko Itzulia, Nafarroako Itzulia eta elite mailako Espainiako erlojupeko lasterketa irabazi baititu, besteak beste. Dena den, eta arraroa gerta badaiteke ere, oraindik ez du talde profesional baten deirik jaso. Hala ere, ez du dena galdutzat jotzen eta irailean Etorkizuneko Tourrean parte hartu ondoren gauzak asko alda daitezke mahatsorri honentzat. Ondorengo aleetan kirolari honen berri gehiago izango duzue, egon seguru!

Testua: Unai Cuevas / Argazkia: Iñigo Azkona

Zein izan da zure bila-kaera txirrindulari-tzan?

Hamahiru urterekin hasi nintzen S.C. Santutxun. Lau urte eman nituen bertan eta ondoren jubeniletako azken urtea S.C La Bilbainan burutu nuen. Gero, Banakan egon

"Portugalen hemen baino aukera gehiago edukiko dut profesional izateko"

nintzen lau urtez eta azken bi denboraldiak Baquén.

Ez da batere arrunta Mahatserrikoa izanik kirol honetan hastea.

Ez, egia esan Bilbon ez dago txirrindulari askorik. Baina nire kasuan, anaia nagu-

sia ere txirrindularia zen eta lasterketetara bera ikusten joaten nintzenez errazago egin zitzaidan zaletasuna hartzea eta kirol honetan hastea.

Zenbat orduz entrenatzen du txirrindulari amateur batek?

Egia esan nik ez dut ordu asko ematen entrenatzen; zentzu horretan nahiko alperra naiz. Dena den, irteten naizenean kilometro gutxi egiten ditut, baina oso azkar. 80100 kilometroko bataz bestekoa mantentzen dut.

Aurten Nafarroako Itzulia eta elite mailako Espainiako erlojupeko proba irabazi dituzu. Honez gero, talde profesionalen eskaintzak izango dituzu mahai gainean.

Ez, momentuz ez daukat ezertxo ere ez. Beraz, lasterketetan parte hartzen jarraitu beharko dut ea zerbait suertatzen den. Norbaitek dei nazan espero dut. Portugalen hemen baino aukera gehiago izango ditudala uste dut baina, hala ere, jautzia hemen bertan ematea gustatuko litzaidake.

Portugaletik deiren bat jasoko bazenu baietza emango al zenioke?

Hori taldearen eta baldintzen arabera izango litzateke. Hemen baino egoera kaskarragoan egoteko bada, hobe da bizikleta uztea eta beste gauza bati ekitea.


Beste zerbaitetan aritzea pentsatu al duzu?

Momentuz ez dut ezertan pentsatu. Agian, zorte pixka batekin, nire aita eta anaia bezala taxista gisa bukatuko dut.

Baina, zure helburua profesionala izatea izango da, ezta?

Bai, noski. Amateur guztien helburua horixe bera da.

Cafés Baqué, afizionatuetan garaipenik gehien lortu duen taldea da. Hau honela izanik, taldearen barnean elkar lehia handia al dago?



Bai, askotan garaipenak eskuratzeko geure artean norgehiagokan aritzen baikara. Dena den, taldekideten artean harreman ona daukagu eta elkar lehia hori ondo eramaten dugu.

Orain arte lortu dituzun garaipenetatik zein aukeratuko zenuke.

Orain dela hiru urte Madrileko Itzulia irabazi nueneko. Eskuratu dudan lehendabiziko itzulia izan da eta oso berezia izan da niretzat.

Betidanik gustatu zaizun txirrindulariren bat izango duzu.

Horiatariko bat Migel Indurain izan da. Baina bera txapeldun handia izan bazen ere, niri gehien gustatu izan zaidana Jalabert da.

EHETIK GORA

EHETIK GORAK

ZUBEROTAR REKIN BAT

Helburua: 1.000.000 €

AUZOLANEAN

Xiberoa garatzen! egitasmoa

deitu orain: 902 33 88 66

05 59 46 13 89

www.sadabiltza.com

UDAL BILZA

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Justuegune,
Euskalgune
Aitziber Irurtia
Iduna Taldea
Urtzi Urrutikoetxea
"Musika munduaren
jatorria dituzten konpositzaileak"

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Miren Agur Meabe
"Euskal literaturan
amiztasuna eta
maila altua dago"

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Eladio Montiel,
Otarikoa gako
abesbatzaren
zuzendaria

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Mikel Alvarez,
mahatsorri bat
Ezevesteko
tontorrean

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

Ignasi Agirre,
"Batu naitzail
zuzen jatorria
esperantzak"

bertan

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
bertan

hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:

Abizenak:

Kalea: Zenbakia: Solairua:

Herria: Herrialdea: Posta Kodea:

Telefonoa:

Bankua:

Kontu zenbakia (20 digito):

DOHAIN **DOHAIN**

Sinadura


ARRUGAETA (662 m.) SAN MARTIN (OROZKO)

Orozkotik Ibarra doan errepidetik, bi kilometro-edo eginda, ezkerretara San Martin dioen ikur bat ikusiko dugu. Handik laster batean helduko gara auzo horretara.

Bertan eliza polita dago. Hantxe utziko dugu autoa. Errepide estuak aurrera jarraitzen du pinudi artean eta errekatxoaren eskumatik, bidegurutze bateraino heldu arte; han, errekatxoa zeharkatuta ezkerretara joko dugu, eta handik ehun metrora gutxi gorabehera eskumako bidea hartuko dugu, Arrugaeta auzora doan errepidea ezkerrean utzita.

Gure pista hasieran eroso da eta laster ikusiko dugu etxola bat ezker aldean; etxolak barruak ura bildu eta bidaltzeko tresna bat dauka. Hemen-dik pixka bat gorago bi baserri eta lastategi handi bat aurkituko ditugu; beraz, ez dago galtzerik. Baserrien artean igaro eta gero, apur bat gorago, ate bat dago (toki politean gaude), eta bideari jarraituz (egun euritsuetan oso lokazturik egongo da, traktoreak baitabiltza pistak zabaltzen) laster ezker aldera jo pinudi artean eta gorantz. Bide hau ona eta eroso da.

Nahiz eta pista batzuk ikusi, gu beti gorantz, bidea utzi gabe, eta pinudia amaitu baino lehen ezkerretara jo, tontorra ikusi arte.



IAKINGARRIAK

Mendi honen tontorrean etxola bat dago -badirudi suteak sortzen diren tokiak ikusteko erabiltzen dutela- eta ondoan, harri artean, txartel kutxa agertzen da.

Tontorraren altuera: 662 m.
Ikuspegia zoragarria da.
Iraupena: Ibilaldia ordu eta erdian egin genuen.

JUSTUEGUNE'02, MAHATSORRIEN HITZORDUA

ABUZTUAREN 3AN OSPATUKO DA JUSTU EGUNEN ERROMERIA,
LEHENENGO ARBOLANTXAN ETA TETUANEN GERO

Abuztuaren 3an Arbolantxako Goikoetxe baserria eta Iturritxualdeko Tetuane landa jaiaz jantziko dira. Antzinako mahatsorrien jai egingo da beste urte batez. Justuegune, Done Justoren eguna ospatuko dute. Betiko lez, bertsolariak, herri jolasak, mus txapelketa, erromeria, meza eta umore ona ez dira faltako.


Ea eguraldia onak ere...

Testua: J. Larrazabal

Argazkiak: BERTON

JUSTUEGUNE 2002

Abustuak 3 Zapatua Tetuane Landan (Iturritxualde mendia)



Justuegune aspaldian mahatsorrien jairik handienetakoa zen. Tradizio handiko erromeria zen bere garaian. Begoñatarrak ez ezik, inguruetako herrietako bizilagunak ere agertu ohi ziren itzal eta ospe handiko egun horretan. Jakina, giro zeharo euskalduna zen, gure herria ere horrelakoxea izan delako azken hamarkadetako aldaketa etorri zen arte.

Justu Deunaren ermitaren inguruan egin ohi

ziren erromeriak. Ermita gaur egungo Santa Marina ospitalearen inguruan zegoen. Hain justu hango pabilioi berri bat egiterakoan bota zuten Justuren ermita 1941ean.

Esan legez, XX. mendean gauzak asko aldatu ziren. Lehenengo herria desagertu zen (Begoña), gero Justu Deunaren ermita bera ere eta azkenean inguruetako baserri gehienak joan ziren. Horrela nahikoa zaila zen tradizioari eustea eta urte ba-

tzuez, jai egingo zen.

Azken urteotan, oster, Otxarkoagako Pa...Ya euskal kultur elkartearen eskutik jai egingo da. Oraingoa zortzigarren urtea da berriz ere mahatsorriok Justuegune ospatzen dugula. Lehenengo tradizioari eusten diote hala Arbolantxa aldeko baserrietako bizilagunek nola Otxarkoagako euskaltzaleek.

ARBOLANTXAN

Aurten Peña Pa...Yak prestatutako kartelean lehenengo ermita zaharreko marrazkia ikus daiteke. Irudia Jabi Olazaran pintoreak egin zuen eta BERTON aldizkariak argitaratu zuen bere 35. zenbakian. Kartela osatzeko, lehenengo baseliza zaharrarekin batera egun horretako jai egitarauaz jantzi dute antolatzaileek.

Justuegune zati bi dauka gaur egun. Lehenengo parte Arbolantxako baserri aldean gauzatzen da. Hain zuzen ere, Goikoetxe baserriaren aurrean. Inguru hori plazatzat hartu eta jai bertan egingo da. Lehenengo eta behin, goizeko hamaiketan meza santua egingo dute. Azken urteotan Begoñako parroko jaunak berak eman izan du meza hori. Aldare txiki bat atonduta hantxe egingo da meza. Behin elizkizuna amaituta, txokolatea banatuko zaie erromeseei eta erromeria egingo da.

Urtero-urtero giro ederra sortzen da Goikoetxe baserrian. Aurten ere Manolo Legina eta bere taldea agertuko dira erromeria akordeoiaren laguntzaz animatzeko. Arbolantxa aldeko baserriarrentzat hitzordu polita izaten da, elkar ikusteko eta aldarte onean egoteko.

Ordubatak aldera jai gorantz doa. Baina ez bakarrik giroan, fisikoan be bai. Izan ere, Arbolantxa utzi eta "bakoitzak ahal duen moduan" Tetuane landetara igotzeko behar da. Landa hori Iturritxualde (Avril) mendia bidean dago, León jatetxearen ondoan.

TETUANEN

Hango landan, ordubat eta erdietan bertso saioa



hasiko da. Izen handiak agertu izan dira azken urteotan bertan bertso kantari. Oraingoan ere, horrela izango da. Baina handiak ez eze, gazteak ere badira. Bizkaiko errebelazioa, Freddy Paya -konpartsaren izena eta bere abizena berdina izateak ere lagunduko zion-, azken Txapelketa Nagusiko sorpresa -Sustrai Kolina- eta gazte beterano bat -Jon Maia-. Hiruren esku egongo da Tetuane landako bertso jarduna. Aginduak ematen, Joxin Iturrioz.

Behin bertso saioa amaituta, herri bazkaria egingo da hango zelaiko arbolaren gerizetan. Behin barruak lasaituta, mus txapelketaren ordua iritsiko da eta, ondoren, bost eta erdietan, herri jolasak egingo dituzte, apustuak eta guzti. Zehatz esanda, sokatiran eta txingaruten ibiliko dira kirolariak.

Eta jaiari amaiera eman baino lehen arratsaldeko erromeriaren ordua etorriko da. Zazpi eta erdietatik aurrera Arizgoiti taldeak joko ditu bazterrak animatzeko eta musikaz mahatsorrien jaiegunari akabu goxoa emateko.

**"Bertso saioan
Jon Maiak,
Freddy Payak eta
Sustrai Kolinak
kantatuko dute"**

INMOBILIARIA
Gelaya
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...
Iturriaga, 92
Ttonoa, 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak
kontabilitatea juridikoa
merkatalgintza**

**PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!**
SAAK

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Negargura emoten dau zeure zilbotea holan ikusteak. Noragino itziko dozu borobiltzen?

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Hobe dozu funtzionario izateko oposaketa horiek prestatzea. Oraingo lanpostu horregaz pobre izaten segidu behar dozu...

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Aholkuak emoten ona zara, bai. Zeuretzako be baten bat eukiko dozu, ezta?

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Azken asteotako bizimodu goxoa ederto etorri jatzu. Klaro, oporrak nekazalturismoan emotea baino hobea gorik ez dago...

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Zenbat eta denda gehiago bisitatu, orduan eta gutxiago erosten dozu. Ez dakizu dendariak ere jan egin behar dabela?

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Itsututa zabiltz azkenaldion. Ondo-ondoan dekozu eta ez dozu ikusten. Udako jaietako gauetan albo-alboka gitxiagotan ibiliko baziña...

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Zoazen leku guzti horreek pijoz lepo eginda egoten dira. Esaitzazu nogaz zabilzen eta...

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Santutxuko jaietan ederra egin zenduan. Ez dozu kontu hori konpondu behar ala?

Sagitarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Neka-neka eginda ikusten zaitut. Zenbat gaupasa egin dozu azken asteotan?

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Erreta zagozala? Krema igurtzita joan behar da hondartzara...

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
'Euskaldunok munduan ez dugu parerik', kantu bat baino ez da, lagun. Ez dozu gauza guztietan irabazi behar...

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Sikatu malko horiek eta... gorde egizuz behingoz tipula zatiok!!

A D A T O Z !

agenda

**ABUZTUAREN 3
JUSTUEGUNE.
ERROMERIA ETA
JAI A TETUANEN
LANDAN**

**ABUZTUAREN 15
AMA BIRJINAREN
EGUNA. ERROMERIA
BEGOÑAN.**

**ABUZTUAREN 14-18
GERNIKAKO JAIK.**

**ABUZTUAREN 14-18
PORTUGALETEKO
JAIK.**

**ABUZTUAREN 18-26
BILBOKO
ASTE NAGUSIA.**

**IRAILAREN 7-16
BERMEOKO JAIK.**

